Más allá de las palabras

PLATAFORMA NAVARRA DE SALUD /NAFARROAKO OSASUN PLATAFORMA :: 31/10/2022

El día 10 de octubre la Plataforma Navarra de Salud/Nafarroako Osasun Plataforma (PNS/NOP) se reunió con el Director General de Salud, Carlos Artundo

Pamplona /Iruñea, octubre de 2022.

El día 10 de octubre la Plataforma Navarra de Salud/Nafarroako Osasun Plataforma (PNS/NOP) se reunió con el Director General de Salud, Carlos Artundo para solicitar información sobre los siguientes puntos:

Aplicación del Plan llamado “reto de Primaria” Criterios de elaboración del próximo presupuesto Pasos concretos previstos para la elaboración de una nueva Ley Foral de Salud Políticas de reducción de las listas de espera Posición del Departamento de Salud ante las pretensiones de las mutuas de extraer a las y los trabajadores de la cobertura del sistema sanitario público para atenderlos desde las propias mutuas y centros privados.

Respecto a Atención Primaria, el Director General la define como el pilar básico de la salud, pero entendemos que no la defiende. El Plan de Atención Primaria sigue siendo un papel escrito que no se materializa en la realidad, no existe ningún compromiso en la mejora de la atención como hemos visto durante toda la legislatura, poniendo como excusa la pandemia. Y respectos a ese discurso repetitivo de falta de facultativos que ha sido rebatido constantemente por expertos de salud pública, no vamos a añadir nada. Además, la realidad es que tampoco se cubren la totalidad de plazas en el resto de estamentos como enfermería ni personal de admisión durante las vacaciones, incapacidades laborales, reducciones de jornada, etc.

En un momento de la reunión se planteó la situación en la zona de salud de Altsasu que es inaceptable y que los-as profesionales y la ciudadanía estamos hartos-as de sufrirla. Él se limitó a decir que hacían todo lo que podían. La Plataforma exigió una solución definitiva que no es otra que cubrir el 100/100 de la plantilla en bloque para no dejar tensionado al resto de personal del Centro.

Por otra parte, en el último informe del Reto de Primaria de diciembre de 2021 el Departamento de Salud se comprometía a reforzar los Centros de Salud con nuevos profesionales y este ha sido el resultado: de los 124 profesionales de enfermería se han contratado 41 en los centros de mayor población; frente a 12 Técnicos en Cuidados Auxiliares de Enfermería (TCAE) están actualmente 5; frente a 16 profesionales de psicología solamente hay 3 contrataciones y frente a 11 administrativas están 5. Hay que señalar que todos estos refuerzos no están realizando los otros cometidos del Plan de Atención Primaria, como son las funciones de prevención, promoción, educación y salud comunitaria, aspectos que el Director General de salud valoró como muy importantes. Conclusión: nos están vendiendo humo. Y para colofón, el Director General sigue en su actitud autocomplaciente insistiendo en comparar el SNS-O con los servicios de salud de

otras Comunidades Autónomas y no con los recursos necesarios previstos en sus propios planes.

La Plataforma señaló la falta de voluntad de anteriores y actual gobierno en la apuesta por el fortalecimiento de la atención primaria, por la disminución de la precariedad en las condiciones de empleo como razones explicativas de la actual situación en materia de personal, así como por resolver la necesidad de evitar el impacto negativo de la sobrecarga de trabajo y la prolongación de las jornadas en la salud de las plantillas. Para hacerlo es necesario aumentar el presupuesto. Sin embargo, no parece previsto el refuerzo de la financiación de la Atención primaria desde el actual 15% hacia el 25% considerado como adecuado. Es cuestionable el compromiso del Gobierno de Navarra con el sistema sanitario público cuando una gran parte del posible aumento presupuestario va a provenir de la Unión Europea, siendo por tanto excepcional, y que va a ser destinado a dotación de equipos hospitalarios y no al fortalecimiento de la Atención Primaria.

El Director General no habló de la necesaria reducción de los conciertos y derivaciones a la privada, los cuales defendió, no habló de las peonadas (horas extras), ni de la reducción de gasto farmacéutico, ni de la atención a la dependencia desde el sistema público de salud etc. Se sentía más cómodo hablando de la digitalización de la atención, del impulso de la medicina personalizada, de la compra de nuevos equipos para terapias avanzadas contra el cáncer etc. según dijo, áreas con gran potencialidad de negocio.

En cuanto a la elaboración de una nueva Ley Foral de Salud expresó claramente que aunque era un objetivo de esta legislatura, no la llevaron a cabo a causa de la pandemia, aun teniendo ya en sus manos un borrador de la misma. Se han comprometido con la necesidad de avanzar en la definición de sus bases para debatirla al inicio de la próxima legislatura. A una pregunta directa de la plataforma apostó por la necesidad de integrar la salud pública y la salud laboral en la atención primaria de salud.

En cuanto a la posición del Gobierno sobre la estrategia de las mutuas no fue abordada por lo prolongado de la reunión, pero entre las soluciones a la falta de profesionales médicos en Atención Primaria el Director General nombró la posibilidad de utilizar médicos de las mutuas empresariales en el sistema público de salud. A nuestro entender, el Director General debería ser más conocedor, y así sería más cauto, a la hora de tener o expresar este tipo de ocurrencias. El riesgo del acceso a la historia clínica del SNS-O por parte de las mutuas, la existencia de la estrategia de éstas por detraer a la población trabajadora de la atención por el sistema público a favor de las propias mutuas y la sanidad privada, la falta de derechos de los usuarios/as en el sistema mutual etc. deben ser valorados y considerados a la hora de hacer determinadas propuestas. No todo vale.

La PNS/NOP espera ser escuchada en la preparación de los próximos presupuestos y convocada al grupo de trabajo parlamentario de establecimiento de las bases para la futura Ley Foral de Salud. Las necesidades y soluciones de las/os usuarios y trabajadoras/es comprometidos desde la movilización con la defensa del sistema sanitario público debe ser tenidas en cuenta.

Firman: Jose Donlo Becerril , MariSol Saiz Aja y Félix Zabalza Irigoyen

Plataforma Navarra de Salud /Nafarroako osasun Plataforma

———————————

Hitzetatik haratago

Iruñea, 2022ko urria.

Urriaren 10ean, Nafarroako Osasun Plataforma (PNS/NOP) Carlos Artundo Osasuneko zuzendari nagusiarekin bildu zen, puntu hauei buruzko informazioa eskatzeko:

“Primariarako Erronka” planaren aplikazioa Hurrengo aurrekontua egiteko irizpideak Osasunari buruzko Foru Lege berria egiteko aurreikusitako urrats zehatzak Itxaron-zerrendak murrizteko politikak Osasun Departamentuaren jarrera zein den, mutualitateek langileak osasun-sistema publikoaren estalduratik atera eta mutualitate eta zentro pribatuetatik arreta emateko asmoei dagokienez.

Oinarrizko Osasun Laguntzari dagokionez, zuzendari nagusiak osasunaren oinarrizko zutabe gisa definitzen du, baina uste dugu ez duela defendatzen. Oinarrizko Osasun Laguntzarako Plana oraindik paperean idatzita jarraitzen du, baina ez da errealitatean gauzatzen; ez dago inolako konpromisorik arreta hobetzeko, legealdi osoan jabetu gara horretaz eta pandemia aitzakia ederra izan da. Osasun publikoko adituek etengabe ukatu duten mediku faltaren diskurtso errepikakor horri dagokionez, ez dugu ezer erantsiko. Gainera, errealitatean, gainerako estamentuetan ere ez dira plaza guztiak betetzen ari, hala nola erizaintzakoak, oporretakoak, lanerako ezintasunetakoak, lanaldi-murrizketetakoak eta abarretakoak.

Bileran, Altsasuko osasun eremuaren egoeraren berri eman genuen, adierazi genuen onartezina dela eta profesionalok eta herritarrok nazkatuta gaudela egoera hori jasateaz. Zuzendariak esan zuen ahal zuten guztia egiten ari zirela, horixe besterik ez zuen esan. Plataformak behin betiko irtenbide bat eskatu zuen, hau da, plantillaren % 100 betetzea, zentroko gainerako langileengan gainkargarik ez uzteko.

Bestalde, 2021eko abenduko “Primariarako Erronka” izeneko planaren azken txostenean, Osasun Departamentuak konpromisoa hartu zuen osasun zentroak profesional berriekin indartzeko, eta hau izan da indartze horrek emaitza: 124 erizaintzako profesionalen beharra dagoen lekuan, 41 kontratatu dira, biztanle gehien dituzten zentroetan; erizaintzako zainketa osagarrietako 12 teknikari beharko lukete, baina 5 daude gaur egun; psikologiako 16 profesional beharko lukete, eta 3 kontratazio baino ez daude, eta, azkenik, 11 administrari beharko luketen tokian, 5 daude. Argitu behar da errefortzuko langile horiek ezin direla Oinarrizko Osasun Laguntzarako Planeko beste zereginak betetzen ari, hala nola prebentzioa, sustapena, heziketa eta osasun komunitarioa: alderdi horiek guztiak oso garrantzitsutzat joak zituen Osasuneko zuzendari nagusiak. Ondorioa: kea saldu digute. Amaitzeko, zuzendari nagusiak bere jarrera autokonplazientearekin jarraitzen du, Osasunbidea beste autonomia-erkidego batzuetako osasun-zerbitzuekin alderatzen saiatuz, eta ez bere planetarako aurreikusita dauden beharrezko baliabideekin.

Plataformak adierazi zuen aurreko gobernukoek eta gaur egungoek ez dutela borondaterik Oinarrizko Osasun Laguntza indartzearen alde egiteko, ez enplegu-baldintzen prekarietatea

murriztearen aldeko apustuan –horiek baitira langileek gaur egun duten egoeraren arrazoiak- , ezta lan-gainkargak eta lanaldien luzapenak plantillen osasunean duten eragin negatiboa saihesteko konponbideen aldeko apustuan ere. Izan ere, horien alde egiteko aurrekontua handitu behar baita. Hala ere, ez dirudi aurreikusita dagoenik Oinarrizko Osasun Laguntzaren finantzaketa egungo % 15etik egokitzat jotzen den % 25era indartzea. Zalantzan jartzeko modukoa da Nafarroako Gobernuak osasun-sistema publikoarekin duen konpromisoa, aurrekontuen gorakadaren zati handi bat Europar Batasunetik etorriko baita; beraz, salbuespenezkoa izango da, eta ospitaleko ekipoak hornitzeko erabiliko da, eta ez Oinarrizko Osasun Laguntza indartzeko.

Zuzendari nagusiak ez zuen aipatu itunak eta pribaturako bideratzeak murriztu behar direnik, eta defendatu egin zituen. Ez zituen aipatu peonadak (aparteko orduak), ez farmazia-gastuaren murrizketa, ez mendekotasuna osasun-sistema publikotik artatzea. Erosoago sentitu zen arretaren digitalizazioaz hitz egiten, medikuntza pertsonalizatuaren bultzadaz, minbiziaren aurkako terapia aurreratuetarako ekipo berriak erosteaz eta abarrez, alegia, negozio-aukera handiko arloez.

Osasunari buruzko Foru Lege berri bat egiteari dagokionez, argi eta garbi adierazi zuen legegintzaldi honetako helburu bat bazen ere, ez zutela gauzatu pandemiaren kausaz, nahiz eta haren zirriborroa eskuetan izan. Konpromisoa hartu dute oinarrien definizioan aurrera egiteko eta, hala, hurrengo legegintzaldiaren hasieran eztabaidatzeko. Plataformaren galdera zuzen bati erantzuteko, osasun publikoa eta lan-osasuna lehen mailako osasun-arretan integratzeko beharraz hitz egin zuen eta alde egin zuen.

Gobernuak mutualitateen estrategiari buruz duen jarrerari dagokionez, aztertu gabe gelditu zen bilera luzea izan zelako; baina Oinarrizko Osasun Laguntzan mediku faltari konponbideak bilatzearen inguruan , zuzendari nagusiak aipatu zuen mutualitateetako medikuak osasun-sistema publikoan erabiltzeko aukera. Gure ustez, Zuzendari Nagusiak gehiago ikasi beharko luke horrelako burutazioak plazaratu baino lehen, eta horrela zuhurrago jokatuko luke hitz egiten duenean. Proposamenak egiteko tenorean aintzat hartu behar dira, besteak beste, mutualitateek Osasunbideko historia klinikoak eskuratzeko duten arriskua, mutualitateen estrategia (langileei mutualitateen eta osasun pribatuaren alde sistema publikoaren bidez ematen zaien arreta kentzeko), erabiltzaileek mutualitate-sisteman duten eskubide falta, eta abar. Denak ez du balio.

Plataformak espero du hurrengo aurrekontuen prestaketan entzuna izatea, eta etorkizuneko Osasunari buruzko Foru Legearen oinarriak ezartzeko lantalde parlamentarioan parte hartzeko deitua izatea. Kontuan hartu behar dira osasun-sistema publikoaren defentsarekin konprometitutako erabiltzaileen beharrak eta konponbideak.

Sinatua: Jose Donlo Becerril, MariSol Saiz Aja y Félix Zabalza Irigoyen

Plataforma Navarra de Salud /Nafarroako osasun Plataforma

---

https://eh.lahaine.org/mas-alla-de-las-palabras